

# Maximinaren txurroak

*Jon Abril Olaetxea*

**Julene Azpeitia**  
**38. ipuin lehiaketa**  
2025 Zumaia

Zumaia  
Udala



**ZUMAIA**  
BIZITZEKO  
DA



# **Maximinaren txurroak**

*Jon Abril Olaetxea*

Julene Azpeitia 38. ipuin lehiaketa

2025

Bigarren saria

2025eko azaroan digitalizatutako ipuina.

© Jon Abril Olaetxea (ipuinarena)

© Zumaiako Udala (argitalpen honena)

Azken ordu laurdenean lau zpabortz aldiz begiratu dio sukaldeko erlojuari Maximinak, barrenean duen urduritasunaren erakusle. Denborak ez du berak nahi bezain agudo egiten aitzinerat. 04:25 dira. 35 minuturen buruan etorriko dira gonbidatuak, eta oraindik lan franko falta zaio. Ohi duen xehetasunarekin egin nahi ditu gauzak, bakoitza bere tenorean, ez lehenago, ez geroago ere. Txurroen oreka egiten du lehenbizi. Esnea berotzen paratu gero, txokolatea egiteko, eta azken orduan joanen da soineko berria janztera eta bere burua edertzera, okasioak merezi baitu.

Ur eta xaboiez garbitu ditu ongi-ongi eskuak. *Heno de Praviaren* usaina aditzen du eskuak igurzten dituen bitartean. Gustukoa zaio usain hori. Hartu du eskuoihal garbi bat, eta ongi idortu ditu eskuak. Segidan, eltze handian bi litro ur paratu ditu, eta goizetik sukaldea berotzen duen ekonomikaren gainean utzi du, ura ongi berotu dadin. Nabari da sukaldean egur-usaina, baina egina da bera horretara. Gaurkoa bezalako haize hegoarekin leihoak derrigor mantendu behar ditu irekita. Bertzela ere guti behar izaten du izerdi-tantak kolkotik beheiti sumatzeko. Bota dio gatz zimiko bat urari. Irakin arte utziko du eltzea sutan. Bidenabar, hartu du okasiorako erositako ogi-irina. Luxua da garai hauetan irin zuria erabiltzea, baina gaurko ospakizunak hala eskatzen du. Joakin okinak ere erreparatu du besta zuela gaur Maximinak, eta ez du parada galdu zirikan aritzeko. Gaur, ordea, dena onartzen du Maximinak. Bahetu du erositako irin kiloa, oso-osorik, eta gopor zabal batean paratu du. Eta pitxer baten laguntzarekin hasi da ur irakina xirripaka botatzen irinaren gainerat. Pixkana-pixkana hartzen du urak bere bidea goporrean barna, astiro, mantso. Eta irudikatzen du Maximinak Egurriko errekek mendian beheiti bidea urratzen duen gisa berean urratzen duela ur bero horrek irin zuria. Auskalo zertan ari den pentsatzen irinaren ontziari erreparatzen dion bitartean.

Sartu ditu bi eskuak, aldi berean, irinak eta urak bere lekua hartua duten goporrean. Esku sendoak, handiak ditu Maximinak. Bere hatzek pianoa jotzeko ez dutela balio erran izan du beti, irriz. Okerrak, makurrak. Indarrez ekin dio ore a nahasteari. Sasoiko dago oraindik. Gustatzen zaio oreak eskuetan eragiten dizkion kilikak. Ore zurixka horrek goxatzen dizkio esku baldarrak. Eta ematen dion bake eta lasaitasunak bere barne-pentsamenduetarat eramaten du, berriz ere. Neskazahar izateari uzteko saiakera antzuak zerrendatzen hasi da, joko bat bailitzan: Antoniorene Iruñeko lehengusu sudur oker hura; Manuel *Konfiterikoa*; Jose Maria, udak herrian pasatzen zituen señoritoa; izena ere gogoratzen ez duen Bernardinaren laguna; Begibeltzeneko bordako Miguel, teilatua konpontzen ari zela erori eta hildako mutila... Miguel. Beti Miguel. Hura bai duela pena! Hark behar zuen beretzat, baina...

Gogo a Miguelengan duela etorri zaio supituki, brast, urduritasun bat, sabeletik hasten dena, eta gorputzeko atal guztietarat hedatu zaiona ohartu ordurako: bururat, besoetarat, hanketarat, oinetarat, behatz puntetarainokoa... "Mugi hadi, Maximina, ez dun denbora soberan, eta laster ditun hemen gonbidatuak". Indar handiagoz nahastu du ore a, ura arrunt agortu arte. Irinak xurgatu du eltzean irakiten paratutako ura. Eskuak palankan an garbitu, eta sartu du ore a mahuka batean. Bitartean, urina paderarat bota, eta beroarekin alde batetik bertzerat dantzari baten maneran irrist nola egiten duen ikusi du, arrunt urtu den arte. Hipnotikoa zaio urinaren urtze-prozesua. Atera du sutik, ez baitu erretzerik nahi. Azkeneko orduan paratuko du, berriz ere gibelerat, ekonomikaren txapan.

Goizean Leku Eder baserrirat joan da esne bila. Etxetik ez da aparte baseria, hamar minutu eskas oinez. Malda koxkorra du, baina motza da bidea. Esku banatan ekarri ditu esne-ontziak, Maria etxeko andrearekin solasaldi polita egin ondotik. Goxoa da emakumea. Baina hain hurbil jaioak izanagatik ere, bi mundu desberdinetan bizi direla iruditzen zaio Maximinari. Baserriaren eremuak arrotzak zaizkio, eta badaki ez litzatekeela aisa laketuko baserrirat ezkonduz gero. Akaso, horretan da berdinen Maria, hark ere herrirat usatzeko izanen luke nahikoa lan! Belaunaldi berekoak diren arren, euren egunerokoek ez dute batere trazarik. Eta, hala ere, gozatzen du harekin izaten dituen solasaldietan. Izanen da Mariaren eleketa lasaiak

ematen diola nolabaiteko sosegua, kalma, frankiltasuna. Edo, akaso, bere egunerokoa hain diferentea zaionez Mariari, haren harridura-aurpegiak eta irri egiteko manierak maite dituela. Grazia egiten baitiote Leku Ederreko Mariari Maximinaren ateraldiek.

Etixerako bidean, bi esne-ontziak esku banatan dituela, agurtu ditu Joxepa eta Ines. Kasu egin dio Purik, eta txurro goxoak jateko gogoz dagoela oihu egin dio Salomé. Ohartu orduko ailegatu da Altzateko Errikoetxea etxerat. Egurrezko eskaileren karranka-hotsak luzatu dira hirugarren pisuraino. Eta irakina utzi du esnea arratsalderako.

Atzerat, hartu du eltzea eta txaparen gainean paratu du. Eta *Pedro Mayo* txokolate-ontzekin bete duen platera hurbildu du txapa ondorat, berotasun horretan beratzen joan daitezten. Esneak berriz ere irakin arte esperatuko du, hala ere, eltzerat botatzeko.

Bidenabar, sukaldetik atera eta jangelarat joan da, okasio berezietan baino erabiltzen ez den jangelarat. Dotore dago. Hurbildu da mahairat. Gaztetan josi zuen mahai-oihalaren gainetik pasa du eskua, lisatzen ariko balitz bezala. Erreparatu dio pazientzia handiz josi zuen bainikari. Eta hari zuriz brodaturik dituen loreei. Kotoi zuri-zuriko oihala garbitu zuen orain egun batzuk Trukeneko Bordako garbitokian, han ziren gainerako emakumeen solas eta irrien artean. Izan ere, gaurko ospakizuna antolatuko zuela erran zuenetik ez du broma guti eraman behar izan! Baita begirada zorrotz eta epai gogorren bat edo bertze. Neskazahar izatea ez baita urguilurako kontua. Okurritzea ere! Baina bortz inporta zaio hori guztia berari! Ez du sobera maite garbitokiko giroa Maximinak, egia erratera. Konprenitzen du emakumeentzat badela bakarrik egoteko toki bat, euren kontuez solasean aritzeko espazio intimo bakarra kasik. Baina gainerakoen bizitzetan sobera sartzen direla pentsatu izan du beti Maximinak. Eta aho-bizarrik gabeko emakumea da bera. Zakarra batzuetan, erraz berotzen dena, eta isilik egoten ez dakiena. Horregatik, gustukoa ez duen zerbait aditzen duenean, mistoak bezala bizten da, eta edozein astakeria botatzen die, uzteko bakean bertze emakumeak, ez sartzeko bertzeen bizitzetan, eta are gutiago inor epaitzeko. Ezin du txutxu-mutxuekin. Ez ditu eramaten elizaren giltzarraporat eta senarraren kate motzerat arrunt lotuta dauden emakumeak. Eta bere

askatasuna bertze deusen gainetik paratzen duenez, argi uzten die gainerakoei zer iruditzen zaion ongi eta zer gaizki. Eta zuria edo beltza da mundua Maximinarentzat. Urardotutako iritziak ez ditu maite. Izana du haserrealdi bat baino gehiago herriko emakumeekin horregatik. Eta apaizek ere, orain baino lehen, epelak bota izan dizkiote. Egia da, hala ere, Errepublika indarrean denetik libreago sentitzen dela Maximina, eta maiz, probokaziorako ere botatzen ditu bere arrapostuak. Gaurko ospakizuna, kasurako. Ez da kikiltzen. Beldurra diote emakume bakan batzuek, lotsatienek eta elizkoienek, bereziki. Destainaz begiratzen diote bertze batzuek. Baina, funtsean, badakite bihotz ona duela, zakur zaunkaria bai, baina ausikirik ez duena egiten. Ez da, hala ere, denen gustukoa, bistan da. Berdin zaio hori Maximinari. Berak aske izan nahi du, ez denon begikoa.

Mahai-oihala garbitzera joan zenean ez zuen ohiko giroa aurkitu, ordea. Bere ospakizuna izan zuten denek ahotan, eta umorez eta jostetan joan zen solas-giroa. Ez da beti horrela izan, ordea. Mespretxua eta iraina dira nagusi, oraindik ere, neskazarrekin. Desohorea. Emakume ezdeusa. Baina garbitokian ez zuen haserretzeko motiborik eduki. Udazkeneko arratsalde beroak aprobeztatu zituen mahai-oihala ongi-ongi idortzeko, eta bezperan utzi zuen lisatuta.

Kotoiaren gozoa ferekatu du, bertze behin, eta egiaztatu du badela katilu nahikoa gonbidatu denentzat, bakoitza bere platertxoaren gainean; paratu duela katilu bakoitzaren ondoan koilara bana, bere izebak oparitutako zilarrezko koilarak, lustrea agerian dutela, ez baititu alferrik *Netolarekin* garbitu. Zimurrik gabe utzi ditu mahai-oihala eta zapiak. Bi loreontzi txiki ere paratu ditu mahaian, baratzetik bildutako krisantemo horiak eta laranjak dituztela. Alaitasuna eta freskotasuna ematen diote gaurko egunari. Behar bezala. Berez ez baitu argi aunitzik jangelak, ez edertasun handirik. Berea baino etxe hobeetakoak dira etorriko diren gonbidatu ia guztiak, eta haien maila erakusterik ez du izanen, baina ez du irrigarri gelditu nahi, bederen.

Begiratu dio, bertze behin, erlojuari, eta ohartu da tenorez dabilela. Joan da bere logelarat, eta goizetik ohatze gainean lisatuta utzi duen soinekoari erreparatu dio. Brodatu fina du lepoaren inguruan, eta beheitiko aldean

lasaiera polita du, ez estuegia, ez zabalegia. Okasiorako josi dio iloba Micaelak. Aparteko eskua du joskintzarako bere ilobak, eta kuttuna du neska gaztea. Zenbat sufritua duen gaizoak, pentsatu du, soinean dituen mantala eta soinekoa erantzten dituen bitartean. Etxeko neskari gazteena zen, eta ume koxkorra zela hil zitzaion ama. Micaelaren aita, Maximinaren anaia, Enrique, gizon ona da, ez du berak bezainbertzeko *malaletxerik*. Tira, Maximinari gehiago gustatzen zaio jenioa duela erratea. Eta alargundutakoan, emaztea zaintzera joana zitzaion koinatarekin ezkondu zen. Micaelak ez zuen sobera maite ama berria, bere izeba zena. Aunitz sufritu zuen Micaela gazteak etxean. Gainera, ume gehiago etorri zen gero, eta gazterik atera behar izan zuen neskato-lanetan aritzera. Maximinak, ahal zuen moduan, laguntzen zuen. Ez ziren alferrik etxe berean bizi, ondoko atarian. Josten ongi ikasi zuen Micaelak. Berak baino abilezia gehiago zuen eskuekin, bistan da. Ospakizuna antolatuko zuela pentsatu zuenean, bertze deus baino lehenago, soinekoa egiteko eskatu zion Micaelari.

Hain gustu dotorez, eta neurri-neurrira ilobak jositako soinekoa jantzi du, eta logelako armairuko atea goitik beheiti hartzen duen ispiluak bueltan bidali dion emakume dotoreari erreparatu dio. Eder ikusten du bere burua. Aspaldiko ederren. Ez diete alferrik *lechuguino* deitzen familiakoei. Pinpirinak. Une batez pentsatu du hain dotore dagoela neskazahar izateari utzi ahalko liokeela, nahi izanez gero. Etorri bezala kendu du burutazio hori. 55 urte bete dituen eguna hautatu du betirako neskazaharra izanen dela aldarrikatzeko, eta horregatik prestatu du gaurko besta. Ez du inor ezagutzen kausa horren alde boz goran aritzen denik. Baina Maximinarentzat ez da lotsaizunerako kontua, ez horixe. Eta horregatik nahi du ospatu. Gonbidapenak ere ezkontza baterako bezala idatzi eta banatu ditu, paper dotore batean eskribiturik:

*"Etsi-etsian, ezkontzeko ilusioen gainbehera etorrita, eta behin eta berriz porrot egin ondotik, neskazahar izaeraren zilarrezko ezteiak ospatzea erabaki dut, 55 urte beteko ditudan egunean, eta 40 urtez alferrikako limurtze-zeregin jarraitua bete ondotik. Gonbidatuta zaude txurroak frijituko ditudan ekitaldira, hilabete honetako 29. egunean, arratsaldeko 5etan, Altzate karrikako Errikoetxea etxean".*

Umorez hartu du urtebetetzea, eta irriz hartu dute lagunak ere gonbidapena. Jenio handikoa dela badakite ingurukoek, baina gisa berean, bertze inork ez bezala bere buruaz irri egiten dakien emakumea dela. Maximinari bertzerik ezin zaio bururatu neskazahar izatearen zilarrezko ezteiak ospatzea! Eta aitortzea 40 urtez saiatsu egin dela, baina alferrikako limurtze-zeregina izan dela. Neskazahar izatea hain gaizki ikusia den garai hauetan, hor dago Maximina, apologia egiteko. Nork bertzela!

Pintatu ditu ezpainak karmin gorriz, kardaturiko ilea bere lekuan dagoela ziurtatzeko bi eskuak eraman ditu bururat, eta eman dio nahi duen itxura. Prest dago. Sukalderat abiatu ordurako sumatu du danba-danba bat atean. Ez zuen uste hain berandu zenik. Baina erlojuari enegarrenez begiratu dionean, konturatu da hamar minutu falta direla. Ez du maite puntuala ez den jendea, eta hamar minutu berandu etortzea bezain desatsegina iruditzen zaio hamar minutu lehenago agertzea. Haserre horrek berotu dio barrena. Etxafuegoa barrenetik aterako balitzaio bezala. Atea ireki eta bertze aldean dagoenari ufada batez harrera egitea bertzerik ez zaio aterako. Badaki hori berak. Eta badaki, seguru asko, atea kolpatu duenak. Baina atearen bertze aldean iloba kuttuna, Micaela, ikusi du. Eta bolbora bustia bezala, ezerezean gelditu da bere haserrealdia. Lasaitua hartu du. Txurroekin laguntzera datorkio iloba, bere soineko berria zikindu ez dadin. "Ederra zaude, izeba. Neskazaharrik dotoreena, zu!", erran dio animatu nahirik ilobak. "Hago isilik, mukizu! Eta hi, bederen, ez hadi neskazahartu. Bila ezan nobio polit bat, eta aberatsa ahal badun!", erantzun dio Maximinak. Elkar besarkatu dute, irri karkaila bat partekatu bitartean.

Sarrerako paretako erloju dotoreak eman ditu arratsaldeko bortzak. Eta sumatzen ditu lagunak eskaileran goiti. Tenorez. Ongi ezagutzen dute Maximina, bistan da. Besta, buila, harrabotsa, iskanbila sumatzen da karrikatik eskailerak goiti. Bera baino harrotuago dabilta! Iloba Micaelak salto egin du sukalderat, eta Maximinak sarrerako atea ireki du, lagunak esperoan.

Etorri da Julia, Itzeako sekretu guztien zerbitzaria. Etorri da Salomé, goxoa, txokolatea bezain. Ixidora irulea, hitzen harilkatzailea ere, ohiko irribarrez. Sartu da Carmen, idazlea eta artista, lagun minetan minena. Eta haren koinata, hura ere Carmen, bertze klase batekoa izanagatik, emakume



hurbila. Eta Pilar, Xuriobaitakoa. Eta Pepita, Apeztegikoa. Baita Isolina ere, Andresbaitakoa. Umetako lagunak. Ez dute hutsik egin Mikeleneko Maria Jesusek, Indianobaitako Mari Cruzek eta Kataliñeneko Benitak. Ez du inork hutsik egin. Atondu ditu guztiak jangelan, eta joan da sukalderat. Han ari da Micaela, abilezia handiz. Paratua du txokolatea esne berotan, eta egurrezko koilara batekin ari da nahasten, itsatsi ez dadin. Ontzak esnetan urtu dira supituki, eta sukalde guztiak hartua du txokolatearen usaina. Nabari da haren banillaren lurrina. Haren kanela-zaporea. Zenbat maite duen txokolate-usaina Maximinak. Baina ezin nahi hainbertzetan jan! Luxua da, eta ezin egunero jan. Gaur bai, ordea.

Micaelak lagunenganat bidali du izeba, eta paratu du padera txaparen gainean. Urina ongi berotu denean, hartu du mahuka, eta dotorezia handiz egin du espiral bat, kanpotik barrenerat. Berehala hartu du urinak burbuila txikiz oreka. Eta hasi zaio aldatzen kolorea, horitik gorriat. Urrekara traza bat hartzeraino. Urinaren usainak estali du, arrunt, txokolatearena sukalde bazter denetan. Txurroak frijitzen dituen bitartean ez dio begirik kentzen txokolate beroari Micaelak, eta nahikoa beroa dagoen frogatzeko, eramane du egurrezko koilara ezpainerat. Ez du batere maite egurrak mingainean eragiten dion hozkirria, baina txokolate beroak aho guztian utzi dion zaporeak ez du parekorik. Eta segituan ahortzi zaio ezpel-egurraren lastasuna. Pasa du mingaina ahasbaitik eta ezpaineratik. Bai goxoa! Eta bero-beroa dago! Sutik apartatu du eltzea. Eta denborarik galdu gabe, eman die buelta txurroei, eta eman ahala, hasi da aitzur baten laguntzarekin txurroak mozten. Egindakoan, ongi xukatuta ateratzen ditu paderatik, eta lore urdinkara txiki batzuez apaindutako portzelanazko azpilera bota. Eskuarekin zabaldu du azukrea txurroen gainean. Ongi oratu ditu txurroak, azukretan bustiak geldi daitezten. Eta errepikatu du prozesua, goitik beheiti, maisutasun handiz, mahukako ore guztia fini zaion arte.

Bidenabar, jangelan, besta da nagusi. Maximinaren soinekoak hartu du arreta lehenbiziko momentuan. Zeinen eder dagoen. Urliak botako diola begia. Sandiak kasu eginez gero, uzteko alde batera neskazahar titulu hori. Baina denak ez datoz bat horrekin. Sandia beharrean, hobe lukeela berendiak eginen balio kasu, sosa gehiago duela sakelan. Baina berendia ez

dela sandia bezain guapoa uste dute gehienek. Eta zer inporta dion horrek behin 55ak beteta! Pobre izateko badirela nahikoak! Kar, kar, kar.

Eta horretan ari direla sartu da Micaela txurroz betetako bi azpil dakartzala. Eta paratu ditu mahaiaren alde banatan. Ooooo! aditu da jangelan, zerbait hagitz berezia den seinale. Eta txurroengatik ez ezik, Maximinari josi dion soinekoarengatik bota dizkiote loreak. Eta, bai, haien adinaren erdia baino gutiago duela, eta hark bai baduela mutil gazte xarmant bat lortzeko aukera. Atsoen solasei kasurik egin gabe atera da Micaela jangelatik. Ziztu batean da bueltan, pitxer dotore batean txokolate beroa dakarrela. Beroaren lurrina ateratzen da pitxerraren ahotik. Eta konturatu ordurako txokolate-usaina gailendu da jangela guztian, emakumeen lurrin eta kolonia denak estaltzeraino. Zerbitzatu die, banan bana katilukada bat txokolate bere izebaren hamar gonbidatuei. Izebak ez dio begirik kendu, eta batere ohikoa ez duen irribarre goxoa oparitu dio. Zerbitzatzeaz akabatu duenean, gainerako emakumeen arterat jarri da bera ere. Baina ez du txurrorik hartu. Denei begira dago, ikusi nahi baitu nolako erantzuna emanen dioten txokolate eta txurroen zaporeari. Oilategiaren doinuak isildu dira, kolpetik. Aho betearekin ez dela solasik egin behar ongi ikasia dute mahai horren bueltan diren emakume guztiek. Bistan da badituztela manerak. Begiak itxi ere egiten dituzte txokolatearen gozoa hobekiago dastatzeko.

Aldi berean hartu dute txurro bana esku artean izebak eta ilobak. Sartu dute txurroaren punta nork bere txokolate katiluan, eta eramanez ahoarekin. Eta txokolate beroa aho guztian barna iristatzen den bitartean, aditzen dute txurroaren karraska. Segundo bakar bat bertzerik ez du irauten, segituan beratzen baita txokolatearen beroarekin. Ez du bertze plazerik nahi Maximinak. Txokolate beroa, txurro karraskariak eta lagunak ondoan. Eta erlojuaren orratzak geldirik, denborak aitzinerat egiten ez duela. Bertze 25 urtez neskazahar izateko prest da.